

## **Una marcha ciclista recorrerá el Gran Bilbao reivindicando la conversión de la industria militar en civil y el fin del tráfico de armas**

- La "Bizi Martxa", convocada por colectivos antimilitaristas, ecologistas e internacionalistas, saldrá el sábado 10 de abril a las 11 horas desde el Palacio Foral de la Diputación de Bizkaia
- Euskadi es la tercera comunidad autónoma del Estado que más factura en industria militar, solo superada por Madrid y Andalucía
- Frente a la actual realidad de recortes en sanidad, pensiones, políticas de igualdad, prestaciones sociales o acceso a una vivienda digna, los recursos que las instituciones destinan al militarismo aumentan ostensiblemente

Bilbao, 7 de abril de 2021.

Diversos colectivos antimilitaristas, ecologistas e internacionalistas de Bizkaia han presentado esta mañana la "Decimotercera Marcha Ciclista contra la Guerra, el Gasto y la Industria Militar" ante el Palacio Foral de la Diputación de Bizkaia, lugar desde el que partirá, el próximo sábado 10 de abril a las 11 horas, un pelotón que se concentrará frente a las filiales de las empresas colaboradoras con la industria militar más importantes del Gran Bilbao: ITP Aero de Barakaldo (antigua Precicast PCB) y SENER, ubicada en Getxo y donde se ubicará la meta de la marcha.

Los objetivos principales de esta marcha son denunciar la cada vez mayor implicación institucional con las empresas vascas de este sector frente a los recortes en sanidad, pensiones, políticas de igualdad, prestaciones sociales o en las posibilidades de acceso a una vivienda digna que ha agravado la pandemia de la covid-19, exigir la conversión de la producción militar a civil y que se ponga fin al tráfico de armas.

En la presentación de la misma han participado personas pertrechadas con el habitual material de un ciclista (bicicletas, maillots, cascos, culots...), acompañadas por un militar de goma-espuma de más de tres metros como símbolo de protesta.

Los colectivos convocantes han declarado que "según datos del Ministerio de Defensa, son un centenar las empresas vascas que producen para la industria militar y Euskadi acredita anualmente 600 millones de euros a través de la misma, lo que la convierte en la tercera comunidad autónoma que más factura del Estado, solo por detrás de Madrid y Andalucía."

De hecho, dos empresas vascas figuran entre las diez que más registran por la elaboración de material militar: ITP-Aero ocupa el sexto puesto y Aernnova, el octavo.

"El 80% de la producción militar vasca se destina a países como Arabia Saudita, principal cliente del estado en este sector, que utiliza estas armas contra el pueblo yemení, o es vendida a Ministerios de Defensa y Fuerzas Armadas de España, Estados Unidos, México, Brasil, Arabia Saudí, Marruecos e Israel, obteniendo unos beneficios cercanos a los 150 millones de euros" han declarado.

Prueba de la cada vez mayor implicación institucional con la industria militar es que el gasto del Ministerio de Defensa ha aumentado en 2021 un 6,5% (664 millones de euros) respecto a 2020, alcanzando los 10.863 millones de euros.

Las organizaciones han señalado que, además, "el gobierno de Pedro Sánchez destina 3.090 millones euros a los "Planes de modernización e investigación y desarrollo" militar y 2.341 millones para la adquisición y gasto en los "Programas Especiales de Armamento", a lo que cabría añadir la deuda contraída en el anterior ciclo armamentístico de 21.000 millones de euros para la adquisición de 1.500 tanques *Leopard* y *Pizarro*, cazas *Eurofighter*, submarinos, helicópteros de ataque *Tigre* y *NH-90*, misiles, etc."

El Gobierno vasco, además, subvenciona con cerca de 100 millones de euros la industria militar, principalmente la ligada al sector aeronáutico, como es el caso de ITP Aero que cuenta con una filial en Barakaldo dedicada a la fabricación de componentes para el avión de transporte militar *Airbus A400M* y para el *Avión de Combate Europeo*.

"ITP Aero reconoce que el negocio militar representa ya un 29% de su negocio total debido a la participación en el *Avión de Combate Europeo Eurofighter* y al mantenimiento de las aeronaves del Ejército del Aire, cuyo contrato asciende a 111,5 millones de euros", han apostillado las asociaciones.

SENER, por otra parte, es una empresa líder a nivel europeo en "Sistemas de Actuación y Control (SAC)" y en aplicaciones de "Inteligencia, Vigilancia, Reconocimiento y Sistemas Integrados" para los misiles *TAURUS KEPD 350*, *IRIS-T*, *RBS 70 NG*, *METEOR* y *NSM*. Asimismo, colabora a través del programa "VULCAN" con la empresa de armamento israelí "Israel Aircraft Industries LTD" para el "diseño de nuevos materiales aeronáuticos".

En definitiva, a través de esta "Bizi Martxa" se exigirá la conversión de la industria militar en civil, tal y como Orbea lo hizo en un pasado cercano; la empresa que en su día se dedicó a la fabricación de pistolas, revólveres y todo tipo de armas cortas que segaron vidas, actualmente fabrica bicicletas, fomentando un estilo de vida saludable y amigable con el medio ambiente.

**ASKAPENA, EGUZKI, EKOLOGISTAK MARTXAN, KAKITZAT, KEM-MOC, KOMITE INTERNAZIONALISTAK y ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK**

## **Bizikleta martxa batek Bilbo Handia zeharkatuko du, eta industria militarra zibil bihurtzeko eta arma trafikoa amaitu dadila eskatu.**

- ♦ Talde antimilitaristek, ekologistek eta internazionalistek deitutako "Bizi Martxa" Bizkaiko Foru Aldundiaren Jauregitik aterako da apirilaren 10ean, larunbatean, 11:00etan
- ♦ Euskadi industria militarrean gehien fakturatzen duen Estatuko hirugarren erkidegoa da, Madril eta Andaluziaren atzetik
- ♦ Gaur egun, osasunean, pentsioetan, berdintasun-politiketan, gizarte-prestazioetan edo etxebizitza duin bat eskuratzeko bidean dauden murrizketak pairatu arren, erakundeek militarismora bideratzen dituzten baliabideak nabarmen handitu dira

Bilbon, 2021eko apirilaren 7an.

Bizkaiko talde antimilitarista, ekologista eta internazionalistek "gerraren, gastuaren eta industria militarren aurkako Hamahirugarren Bizi(kleta) Martxa" aurkeztu dute gaur goizean Bizkaiko Foru Aldundiaren Jauregiaren aurrean. Bertatik tropel bat abiatuko da, Bilbo Handiko industria militarrekin elkarlanean aritzen diren enpresa garrantzitsuenen aurrean elkartu ondoren: Barakaldoko ITP Aero-n (aspaldiko Precicast PCB) eta Getxoko SENER-en (ibilbidearen helmuga).

Martxak bi helburu ditu. Ozen salatzea gero eta inplikazio handiagoa dutela erakundeek sektore honetako euskal enprekin, eta bitartean murrizketak egiten direla osasungintzan, pentsioetan, berdintasun-politikoetan, gizarte-prestazioetan edo COVID-19 pandemiak gutxiagoturiko aukeretan, etxebizitza duina izateko. Era berean, ozen eskatzea ekoizpen militarra ekoizpen zibila bihurtzea eta arma-trafikoa buka dadila.

Martxaren aurkezpenean txirringulari baten ohiko materialez (bizikletaz, maillotez, kaskoz, kulotez) hornitutako pertsonen parte hartu dute, hiru metro baino gehiagoko goma-aparrezko militar batekin batera, protesta-ikur gisa.

Talde deitzaileek adierazi dutenez, "Defentsa Ministerioak emandako datuen arabera, ehun bat dira industria militarrentzako ekoizten duten euskal enpresak eta Euskadik 600 milioi euro egiaztatzen ditu urtero industria horren bidez; horrenbestez, Estatuan gehien fakturatzen duen hirugarren erkidegoa da, Madril eta Andaluziaren atzetik soilik."

Hain zuzen ere, Estatuan material militarra egiteagatik gehien fakturatzen duten hamar enpresen artean, bi euskal enpresa daude: ITP-Aero seigarren postuan dago eta Aernnova zortzigarrenean.

"Euskal ekoizpen militarren %80 Saudi Arabiara bideratzen da, Yemengo herriaren aurka arma horiek erabiltzen dituena. Saudi Arabiako Defentsa eta Indar Armatuaren Ministerioaz gain, Espainia, AEB, Mexiko, Brasil, Maroko eta Israelgoak ere dira bezero, eta trukearekin 150 milioi euro inguruko irabaziak lortu", azaldu dute.

Erakundeek industria militarrekin duten inplikazio gero eta handiagoa delako frogatzen da Defentsa Ministerioaren gastua %6,5 handitu dela 2021ean (664 milioi euro) 2020koarekin alderatuta, eta 10.863 milioi eurora iritsi dela.

Erakundeek adierazi dutenez, gainera, "Pedro Sanchezen gobernuak 3.090 milioi euro bideratzen ditu "modernizazio, ikerketa eta garapen planetara", baita 2.341 milioi "armamentu Programa Bereziak" eskuratzeko eta horietan gastatzeko ere. Horri aurreko armagintza zikloan hartutako 21.000 milioi euroko zorra gehitu behar zaio 1.500 *Leopard* eta *Pizarro* tankeak, *Eurofighter* ehiza-hegazkinak, itsaspekoak, *Tigre* eta *NH-90* eraso helikopteroak, misilak eta abar erosteko".

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 100 milioi euro inguruko dirulaguntza ematen du industria militarerrako, batez ere sektore aeronautikoari lotuta dagoenerako. Barakaldon filial bat duen ITP Aero enpresa da horren adibide, *Airbus A400M* garraio militarerrako hegazkinaren eta *Europako Borroka Hegazkinaren* osagaiak fabrikatzen baitu.

"ITP Aerok aitortu du sektore militarra bere negozio osoaren % 29 dela. Izan ere, *Eurofighter Europako Borroka Hegazkinaren* fabrikazioan eta Aireko Armadaren aireontziak mantentzearen truke 111,5 milioi euroko kontratua du", adierazi dute elkarteek.

Bestalde, SENER enpresa liderra da Europan "Jarduketa eta Kontrol Sistemetan (JKS)" eta *TAURUS KEPD 350*, *IRIS-T*, *RBS 70 NG*, *METEOR* edo *NSM* misilentzako "Inteligentzia, Zaintza, Azterketa eta Sistema Integratueta" aplikazioen sorreran. Halaber, *Vulcan* programaren bidez, "Israel Aircraft Industries Ltd" Israelgo armamentu enpresarekin lan egiten du "material aeronautiko berriak diseinatzeko".

Azken batean, "Bizi Martxa" honen bidez, industria militarra zibil bihurtzea eskatuko da, Orbeak iragan hurbilean egin zuen bezala; garai hartan pistolak, errebolberrak eta biziak kendu zituzten mota guztietako arma laburrak fabrikatzen zituen enpresak bizikletak egiten ditu gaur egun, eta bizimodu osasungarria eta ingurumenarekin adiskidetsua sustatu.

**ASKAPENA, EGUZKI, EKOLOGISTAK MARTXAN, KAKITZAT, KEM-MOC, KOMITE INTERNAZIONALISTAK eta ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK**